

Iratxe Esnaola

◆ IDAZLEA



DANI BLANCO

Maskara eman

NEW YORKEN sortutako *Guerrilla Girls* kolektibo artistiko feministaren atzera begirakoa dago ikusgai Bilboko Alhondigian. 1985etik hona artearen munduan ematen den emakumeen kontrako diskriminazioa salatzen jardun izan dira gerrilla kideak, museotan paratzen dituzten gizon-emakume artisten obren presentziari buruzko datu estatistikoak plazaratuz eta bazterketa praktikatzan duten zentroetako arduradunak izen abizenez seinalatuz. Kartelak eta posterrak itsasten dituzte hirian, nortasuna ezkutatu eta hildako emakume artisten ezizenez identifikatu. Edonola ere, benetako sona gorila maskarekin azaltzeak eman die, eta noski, maskarek eragiten duten inpaktuak izan du zerkusia beren ekintzen oihartzunean. Ez alferrik gorilaren mozorroak femininotasunaren irudi normatiboa kordokatzen du lehen begi kolpean. Maskaren eta feminismoaren uztartzearen baliagarritasuna erakutsi du, halaber, Pussy Riot talde feminista punk errusiarrak. Aurpegiak kolore biziko buruberokiz estaliz mundu mailako sona lortu zuten 2012ko otsailean Moskuko Kristo Salbatzailea katedralera sartu eta gitarrei eraginez ama birjinari orazio bat kantatu ziotenean, zertarako eta, Vladimir Putin eta eliza ortodoxoaren arteko harremanak salatzeke.

Duela hilabete pasa bururatu nuen azkeneko maskara bat. Donostiako Egia auzoko Porrontxo jaien baitan *Poemaskarada* ospatu genuen *lutxa libre* mexikarreko maskarak jantzita eta gizakiz osatutako ringean poemak errezitatu genituen. Piztia poetikoak askatzeko saiakera izan zen, gidari izan genuen Ion Olano Carlos sortzaile lagunaren hitzetan. “Aurpegia estalita, askeago sentitu nintzen barrenak biluzteko”, aitortuko zidan beranduago. Niri ere barrenak mugitu zizkidan maska-

rak. Ni oldartsuago bat ernai zitzaidan. Virginie Despentese *Teoria King Kong* entseguan aipatzen zuen antz gehiago duela King Kongekin Kate Moss-ekin baino. Alderdi basak oihu egiten dio emakumetasun pasiboari. Beharrezko zaigu ariketa hori derrigorean, genero eraikuntzaren aldamiaioa desmuntatzearen praktika kontzientea eginagatik, hainbat jarrera irakatsik gugan baitiraute. Maskarak gogorarazi zidan domatzea lortu ez duten basakeria dudala barruan. Gogorarazi zidan nire baitako piztiak gauza

asko dituela artean aldarrikatzeko. Kuriosoena da errebeldia hori alderantzizko bidetik bilatu izan dudala. Gardena izatea hobetsi izan dut injustiziei aurre egiterakoan. Gauzak aurrez aurre esateko joera izan dut eta ez ezkutatzekoa, berdin ekintza pertsonal zein kolektiboetan,

maskara gabeko estrategiez ia beti. Alta, maskarekin izan nuen sentipenari erakusketatik erreskatatutako

hitzok gehitzen zaizkio: “Pren-tsak beti izan du gogoia gorilen mozorroak daramatzaten feministekiko eta feministei buruz hitz egiteko. Elkarrizketa asko egiten ditugu idatzizko hedabideentzat, irrati eta telebistentzat, eta beti joaten gara oihaneko jantziaz goitik behera atonduta. Ezin duzu imajinatu ere egin zer esan dezakezun gorila-mozorroa jantzita daramazunean”. Horixe bera.

Eta gehiago. Aldarri egin nahi duen errebeldea zailago da identifikatzen maskarepean. Eta garrantzitsuago, arerioei maskarak ez die uzten gure malkoak ikusten, ezta erresistitzeak tarteka dakarren keinu samina ere.

Animalia otzan nahi gaituzten garaiotan maskarak pizten du piztia. Errebeldia eta poetikotasuna, biak artez batzen dituen Liliana

Felipek honela dio: “Beldur digute beldurrik ez die-gulako”. Aurpegia, maskara emanez, ematen dugu basati. ■



Antton Olariaga

